

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2023ko urriaren 26a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetexea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2023ko irailaren 28ko udalbatzarraren ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- 2.- 2023ko udal-aurrekontuaren hirugarren hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.

- 3.- 2023ko hirugarren hiruilekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epearen berri ematea.
- 4.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 8/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egin dago.
- 5.- Lehen onarpena ematea, egoki bada, udal-aurrekontu propioaren 9/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarriaren modalitatean egin dago.
- 6.- Onartzea, egoki bada, Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak aurkeztutako proposamena 2024ko auto-taxien hiri barruko tarifei buruz.
- 7.- Onartzea, egoki bada, ordainsarien igoera gehigarria 2023rako, Udaleko langileei dagokiena eta kargua dedikazio oso edo partzialen betetzen duten udalbatzako kideei dagokiena.
- 8.- Onartzea, egoki bada, baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orriak eta baldintza teknikoaren orriak, Orioko Antilla Hondartzako 2. zenbakidun eraikinaren okupazioaren kontzesio administratiboaren kontratazioa arautuko dutenak, bertan Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko.
- 9.- Onartzea, egoki bada, UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak «Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat» lelopean aurkeztutako adierazpena.
- 10.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2023KO IRAILAREN 28KO UDALBATZARRAREN OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA 2023ko irailaren 28ko udalbatzarraren ohiko bilkuraren akta.

2.- 2023KO UDAL-AURREKONTUAREN HIRUGARREN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

3.- 2023KO HIRUGARREN HIRUHILEKOARI DAGOKION ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

4.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 8/2023 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITUA TRANSFERITZEKO MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 8/2023 zenbakidun espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 21.131 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko urriaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 8/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditua transferitzeko modalitatean egina dago eta 21.131 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

5.- LEHEN ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDAL-AURREKONTU PROPIOAREN 9/2023 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEARI. ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIAREN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 9/2023 espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 68.000 euroko zenbatekoa du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko urriaren 20an egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH Bildu), Santamaria (EH Bildu), Ibarguren (EH Bildu), Munduate (EH Bildu), Andres (EH Bildu), Makazaga (EH Bildu), Solabarrieta (EH Bildu), Lizarralde (EH Bildu), Rementeria (EH Bildu) eta Alguacil, guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Abstentzioak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Basurko (EAJ); guztira **HIRU ABSTENTZIO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Udalaren aurrekontu propioaren 9/2023 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Espedientea kreditu gehigarrien modalitatean egina dago eta 68.000 euroko zenbatekoa du.

2.- Indarrean dagoen araudia betez, **JENDAURREAN JARTZEA** espediente hori, arau hauen arabera:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-Kontu-hartzailletza

b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera-erregistro nagusian, bulego-orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).

f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea amaitu eta inolako erreklamazio edo oharrik jaso ez bada, kreditua aldatzeko espedientea behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio-botoa eman duela, joan den urriaren 20an egindako Barne Antolaketa batzordean emandako botoarekin bat

etorritz, uste dutelako beste modu batean antolatu behar direla kultur ekintzak eta festak, ezustekoak ez gertatzeko.

Inaxio Alguacilek hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du pasa den legealdian kreditua aldatzeko espedienteak aho batez onartu izan zirela. Aldiz, legealdi honetan, EAJk bitan eman du dagoeneko abstentzio-botoa, kreditua aldatzeko espedienteak onartzeko garaian, kreditu gehigarrien modalitatean. Ondorioz, Inaxio Alguacil zinegotziak adierazten du ez dituela nahiko arrazoi ikusten EAJk abstentzio-botoa emateko, ez forman eta ez funtsean. Kontuan hartu behar da kreditua aldatzeko espedienteak ohikoak eta arruntak direla edozein administrazio publikotan eta ustekabekoei aurre egiteko erabiltzen direla. Azkenik, Inaxio Alguacil zinegotziak adierazten du kreditua aldatzeko espedientei aurre egiteko garaian ez dugula inoiz ikuspegia galdu behar.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, TAXIAREN GIPUZKOAKO ELKARTEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA 2024KO AUTO-TAXIEN HIRI BARRUKO TARIFEI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; Taxiaren Gipuzkoako Elkarteak eskaria aurkeztu du, 2024an Orioko auto-taxi zerbitzuaren tarifak %2,6 igotzea proposatuz.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Barne Antolaketa batzordeak 2023ko urriaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

Orioko auto-taxi zerbitzuaren tarifak %2,6 **IGOTZEA** 2024an. Onartu diren tarifak hauek dira:

AUTO-TAXI ZERBITZUAREN TARIFA URBANOAK 2024			
PROPOSAMENA	GUTXIENEO TARIFA	KILOMETRO BAKOITZEKO	ITXAROTEN PASATAKO ORDUA
1. TARIFA*	6,3906	1,3638	26,0448
2. TARIFA**	7,6072	2,1751	42,5129

Gutxieneko tarifaren barruan sartuta daude ibilbideko 1,5 kilometro edo itxaroten pasatako 5 minutu.

(*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, 07:00etatik 22:00etara.

(**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. 2. tarifa aplikatuko da, baita ere, igandetan, larunbatetan eta jaiegunetan, eta abenduaren 24an eta 31n, 07:00etatik 22:00etara.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDAINSARIEN IGOERA GEHIGARRIA 2023RAKO, UDALEKO LANGILEEI DAGOKIENA ETA KARGUA DEDIKAZIO OSO EDO PARTZIALEAN BETETZEN DUTEN UDALBATZAKO KIDEEI DAGOKIENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Igoera horren oinarrian Estatuaren 2023ko Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.2 artikuluan ezarritakoa dago eta, honi buruz, EUDEL elkarteak gomendio hau egin die euskal udalei:

2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.2 artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien %0,5eko gehikuntza gehigarria onartzea.

Igoera hori aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean dauden ordainsariei eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Barne Antolaketa batzordeak 2023ko urriaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA udal-langileen eta kargua dedikazio osoarekin edo partzialarekin betetzen duten udal-korporaziokideen ordainsarien %0,5eko igoera gehigarria, 2023rako.

Igoera hori aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean dauden ordainsariei eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

8.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA JURIDIKO ETA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBOEN ORRIAK ETA BALDINTZA TEKNIKOEN ORRIAK, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO 2. ZENBAKIDUN ERAIKINAREN OKUPAZIOAREN KONTZESIO ADMINISTRATIBOAREN KONTRATAZIOA ARAUTUKO DUTENAK, BERTAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA-ZERBITZUAK EMATEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Tokiko Garapena batzordeak 2023ko urriaren 6an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboen orriak eta baldintza teknikoaren orriak, Orioko Antilla hondartzako 2. zenbakidun eraikinaren okupazioaren kontzesio administratiboaren kontratazioa arautuko dutenak, bertan Udalak baimendutako ostalaritza-zerbitzuak emateko.

9.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UEMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAK «OLDARRALDIAREN AURREAN, EUSKARAREKIN BAT» LELOPEAN AURKEZTUTAKO ADIERAZPENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Adierazpenak honela dio, hitzez hitz:

Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat

Egun hauetan jakin dugu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin dituela Eusko Jaurlaritzaren 179/2019 Dekretuaren hainbat artikulua. Udal Legea garatzen du dekretuak, eta hizkuntza ofizialen erabilera arautzen du. Espainiako Auzitegi Konstituzionalak uztalean Udal Legeari buruz emandako epaiaren ostean, Dekretuaren aurka egin du berriro Auzitegi Nagusiak, beste bi epairekin. Epai hauek euskararen ofizialtasuna bera ere zalantzan jartzen dute, askotan Udal Legeak arautzen ez dituenak ere aurreikusiz, modu prebentiboan.

Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalarekin onartu zuen epaitegiek baliogabetu nahi duten Udal Legea, eta azken Inkesta Soziolinguistikoak ere argi erakutsi du gizartearen gehiago zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hauek, euskararen biziberritzearen aurkakoak ez ezik, adostasun sozial handi baten kontrakoak ere badira. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen dute auzitan.

Horren aurrean, adierazpen hau egin nahi du Udalak:

- 1.- Kezkaz eta larritasunez hartu ditugu euskararen indarberritze-prozesuaren aurkako azken epaiak, guztietan berbera izan baita norabidea. Epai horiek traba dira urteotan euskara sustatzeko bidean adostasun handiz eraiki den orubearentzat.*
- 2.- EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiek bete-betean eragiten diete UEMAk eta bertako kide diren udalek urte askoan jorratutako lan-ildoak: hizkuntza-plangintzari, kontratazioari eta euskara lehenesteari, adibidez. Udalak helburu nagusien artean du udalerrian euskara normalizatzea eta herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea, eta sententzia horiek oztopo besterik ez dakarte. Hori jarri baitu ezbaian auzitegiak: euskararen normalizazioa. Euskara lehenestearen aurka egin du, gaztelania baztertzea delakoan. Ez da halakorik, ordea: minorizatutako hizkuntza aurrerabidera eramatea da, eskubide guztiak bermatzeko.*
- 3.- Sententzia horiek bereziki eragiten diete udalerrri euskaldunei, horietan ari baitira hartzen euskaraz funtzionatzeko neurri gehien. Hori oztopo bikoitza da euskararen indarberritze-prozesuarentzat: sententziek, batetik, galga jartzen diete euskara normalizatzeko neurri aurreratuenei, eta normalizazio-prozesuak badauka horren premia; bestetik, euskarak indar handiena duen lurralde-eremuei eragiten diete, eta gune horien premia gorria du euskarak. Udalerrri euskaldunek ezinbestekoa dute lege-babesa.*

- 4.- *Udalerri euskaldunetan, hainbat arlotan aurrera egin du euskarak hamarkada hauetan, baina oraindik bada zertan eragin. Udalean bertan ere urrats handiak egin ditu euskarak, eta gaur egun, zerbitzu-hizkuntza ez ezik, lan-hizkuntza nagusia ere bada euskara. Horretan jarraitzeko asmo sendoa du Udalak, eta aurrerantzean ere martxan jarriko ditu bere esku dauden neurri eta plangintza guztiak. Euskara da gure udalerriko hizkuntza propioa, eta hori sustatzen jarraitzeko konpromisoa dauka Udalak. Justiziazkoa da.*
- 5.- *Udalak, asmo hori garatu ahal izateko, ezinbestekoa du lege-orube sendoa. Hortaz, Udalak dei hau egin nahi die lege-araudia garatzeko eskumena duten gainerako erakunde guztiei: nork ere eskumenekin eta elkarlana oinarritzat hartuta, urra dezagun bidea euskararen indarberritze-prozesua lege-babes sendoarekin hornitzeko.*
- 6.- *UEMAk bat egin du Euskalgintzaren Kontseiluak azaroaren 4an Bilbon antolatutako manifestazioarekin, eta epai horiek beste arrazoi bat jarri dute kalera ateratzeko: euskararen aurkako oldarraldia eten egin behar da. Horregatik, UEMAko kide den heinean, euskararekin bat egiteko eta Bilboko mobilizazioan parte hartzeko deia egiten die Orioko Udalak herritarrei.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak «Oldarraldiaren aurrean, euskararekin bat» lelopean aurkeztutako adierazpen instituzionala, goian jasota dagoen bezalaxe.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du, Israel eta Palestinaren artean sortutako gatazkaren aurrean, eskatu nahi dietela nazioarteko erakundeei irtenbide baketsuak bilatzea eta laguntza humanitarioa ematea. Era berean, adierazten du bere talde politikoa prest dagoela EH Bildurekin mozio/adierazpen bateratu bat adosteko eta datorren udalbatzarraren bilkuran eztabaidatu eta onartzeko.

Anuska Esnal alkateak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du bere talde politikoa ere prest dagoela EAJrekin mozio/adierazpen bateratu bat adosteko eta datorren udalbatzarraren bilkuran eztabaidatu eta onartzeko. Era berean, adierazten du bat egiten duela osotasunean Noemi Ostolaza zinegotziak gaiari buruz adierazitakoarekin.

Ez zen eskari edo galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,